

Hurrengo ikasturtera arte!

Eskola-jarduna amaitzearekin batera, hau izango da ikasturte honetako azken Ataria. Urduri eta kezka beteta hasi genuen urtea, baina guztion elkarlanari esker oso modu txukunean egin diogu aurre osasun-egoerari. Mila esker ikasturtea aurrera eramaten zuen aletxo jarri duzuen guztioi. Egoera pixkanaka hobetuz joango delakoan, uda ona pasa!!




Azken egun berezia!

Ikasturte berezi honi amaiera emateko modu desberdinak bilatu ditugu: mendi-bueltak, hondartzaplanak, jolasak, eskulanak... Gora oporrak!



Zurriolako euskarazko mediateka

DBH 4 eta Batxilergo 1eko ikasleek euskarazko edukien mediateka sortu dute elkarlanean: euskarazko filmak, dokumentalak, musika eta liburua. Beren gustukoak diren erreferentzi eta aholkuak bildu dituzte, eta guztion eskura jarri, uda honetan euskara bizitu dezagun!



Ipuin-kontaketa antzeztua

Asteartean guraso bat etorri zitzaigun "Nola dastatu ilargia" ipuina kontatzera HH 3-ra. Hori ibili ginen animaliei ilargia dastatzen lagundu nahian. Azkenean, haien arteko elkarlanari esker lortu zuten!!! Ipuina asko gustatu zitzaigun eta ikaragarri ondo pasa genuen. Mila esker, Enara!



Joko-olimpikoak

Gure diziplinarteko proiektua dela eta, azken aste honetan joko olimpiako antolatutako LH 4n. Gustura aritu gara antolatzaile, entrenatzaile eta kirolari funtzioetan, eta dena ondo antolatu eta jolastu ondoren, gure sari banaketak egiteko aukera ere izan dugu. Zein gustura aritu garen!



Harrobitxuloko parkera irteera

LH 4. Mailako ikasleak Harrobitxuloko parkean izan gara aste honetan. Bero handia egin bazuen ere, ederki pasa genuen.



Belauntziko ikastaroa

Aste honetan amaitu da DBH 2ko ikasleek hiruhileko honetan egin dugun bela-ikastaroa! Saio teoriko eta praktikoko izan ditugu, eta kirol hau hobeto ezagutzeaz gain, gure parajeaz gozatzeko aukera izan dugu!



Fraktalei buruzko proiektua

Azken ebaluazioa bukatu eta, aurtan ere, fraktalen inguruko proiektua jarri genuen abian. Hiru astez aritu gara DBH 3. mailakoak buru belarri fraktalei buruzko lana egiten. Ekimen hau hiru arlotatik garatu dugu: matematika, euskara eta ingelesa. Fraktalak zer diren, zein ezaugarri dituzten eta zertarako erabiltzen diren ikasi dugu, eta, ez hori bakarrik, eskulanetan ere aritu gara fraktalak eraikitzen! Lan polita egin dugu!



Plastiko-bilketa kanoetan

Urumea ibaian plastiko-hondakinak biltzen aritu ginen astelehenean DBH 4ko ikasleok, kanoetan. Donostiako Udalararen Zero Plastik programaren barruan egin genuen irteera, ekaina Plastikorik Gabeko Hilabetea izendatu baitute, eta Arrauning elkartearen laguntza izan genuen. Esperientzia bikaina!



Zurriola Antzerki Eskolaren ikasturte amaiera

Milesker aurtengoan ere gurekin aritu zareten ikasle guztiei, eta baita emanaldiak ikustera etorri zareten guztiei ere!!!! Datorren ikasturtean ere antzerkiarekin ikasten eta gozatzeko jarraituko dugu!



HH5ekoek Sorari agur. 2 urtetxorekin etorri zineten Villa Soroara. Bidean elkar ezagutu, elkar ikasi, elkar maitatu dugu. Mila esker zuen lehen urteen parte izateko aukera hau eduki izanagatik! Zorriek onena opa dizuegun zuen bizitzako bidai polit honetan!

Jatorrak, goxoak, alaiak, zoroak
beti ondoan egongo zarete
datorrenarako ilusioz bete
jarrai dezagun ametsetan tente

OHARRAK / AGENDA:

- 2021/22 ikasturteko informazioa: Uztailen bidaliko da.
- HH5: Josefinetara bisita. Ekainak 21. HH5A-B (Ainere-Miren): 10:00etan Soroan. HH5C-D (Amaia-Aitziber): 10:30ean Soroan.
- DBH: Ez-ohiko azterketak. Ekainak 21 eta 22.
- DBH1: [Liburu salmenta antolaketa](#).
- [Zerbitzuak 2021/22: Informazioa eta galdetegiak](#).
- [Zurriola Antzerki Eskola](#): "Inoiz ez da ezer gertatzen". Antzezalana. San Juanen. Ekainak 18.
- [Haurtxokoa & Gaztelekuak](#): Ekaineko programazioa. Ekintza bereziak.

ZERBITZUAK
2021/22
Lurriola Ikastola

berabera
Kirol berri bat ikasi eta praktikatu nahi duzu?
Taldea batean jokatu nahi?

itzuli

